

Urtero bezala Erronkariko eskolan gogotsu heldu diogu martxoak 8 ospatzeari. Ihauterietako oporretatik bueltan Elkartasun Batzordekoekin batera antolatuta, ibaxako Silvia Calvo eta Aitziber Ganuza gurera etorri ziren Txiapasen bizitako esperientzien berri ematera.

Bidai diferenteetan ezagututako errealitatea argazkien bitartez gurekin konpartitu zuten. Geografikoki non kokatua dagoen azaldu ziguten, bertako paisaietako argazkiekin gozatu genuen, gure eta haien elikagaiak alderatu genituen eta janari minak maite dituztela ikasi genuen. Antzinako kultura maiaren lurraldetan, gaur egun komunitateetan nola bizi diren aurkeztu ziguten. Eurek eraikitako eta horma-irudiz apaindutako eskolak eta osasun zentroak ikusi genituen eta asko gustatu zitzaizkigun.

Gainera Txiapaseko emakumeekin Yach'Il Antzetic izeneko komunitate-etxe batean lankidetzan aritzen direla kontatu ziguten. Bertan haurdun dauden emakumeak, familia nahiz giza sostengurik ez dutenak, artatzen dituzte. Laguntza, tratu hurbila eta konpainia izateaz gain adostutako erditze naturalak prestatzeko aukera dute, bestelako emakumeekin antolatzen eta sareak sortzen ikasten dute, artisautzan trebatzen dira edota belar sendagarrien ezagutzari ekiten diote.

Komunitate-etxe honen lanari esker baliabide urriko emakumeek haurdunaldia duintasunez aurrera eramateko aukera dutela ikasi genuen.

Bestetik, martxoak 8 jai giroan ospatzeko, ostiral arratsaldean karaoke bat antolatzea erabaki genuen. Eskolako gela bakoitzak abesti bat prestatu zuten jaialdirako. Emakume abeslari diferenteen kantaz gozatzeko aukera izan genuen; Alaitz eta Maider, Bebe eta Shakiraren erritmoekin dantzatu ginen.

Bukaeran ikasleek ekarritako maite dituzten ama, izeba, amona edota lagunak argazkiekin mosaiko handi bat osatu genuen gure eskola apaintzeko.

Un año más hemos querido celebrar desde la escuela de Roncal el 8 de marzo. Tras las vacaciones de carnaval, invitadas por la Comisión de Solidaridad, tuvimos la suerte de disfrutar de una charla a cargo de Silvia Calvo y Aitziber Ganuza.

Nos contaron la realidad y las experiencias que han vivido en sus diferentes viajes a Chiapas. Mostrándonos fotos fueron explicándonos su localización geográfica, sus bellos paisajes y sus comidas. Descubrimos que en Chiapas les encanta el picante. En tierras en las que la antigua civilización maya tuvo su esplendor, descubrimos que hoy en día viven en pequeñas comunidades, donde construyen y decoran con elegantes murales sus escuelas y centros de salud.

También nos contaron el trabajo que allí se realiza en el hogar comunitario de Yac'Il Antzetic que acoge a mujeres embarazadas carentes de apoyo social o familiar. Allí además de ofrecerles un trato cercano y personal, entre otras muchas cosas, les ayudan a prepararse para vivir un parto natural según sus deseos, aprenden a organizarse junto a otras mujeres, se inician en desarrollar capacidades artísticas y comparten conocimientos de plantas medicinales.

Gracias al trabajo que realizan en este hogar comunitario aprendimos que las

mujeres de pocos recursos tienen la oportunidad de vivir un embarazo digno.

No contentas con esto, decidimos preparar un pequeño karaoke para darle un toque festivo a la celebración del 8 de marzo en la escuela. Para el viernes por la tarde cada grupo preparó una canción de algún grupo o solista femenina. De esa manera pudimos disfrutar de las voces de Alaitz eta Maider, Bebe o los ritmos de Shakira.

Para finalizar creamos un gran mosaico con las diferentes fotos que el alumnado trajo de madres, abuelas, amigas o primas que quieren. El resultado en la foto.